



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2008-04-30

VIURTEA 1.421.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



'ARTEA OINEZ' ARANBURURA IRITSI DA



Goian, Oteizaren *Euskal Zentauroa* eskultura. Behean, Bildarratz, Apalategi eta Arellano, atzoko aurkezpenean. I. GARCIA

Elkarretaratzea Haur Eskola eta Ikastolako gurasoek deituta

IBARRA Gaur izango da, 17:30ean, herriko plazan; parte hartzeko eskatu diete herritarrei 6



Aldaba Txikiko mendian dago Langaurreko parkea. N.U.

Langaurreko bordatxoak 25 urte bete ditu

ALEGIA Jabier Balerdik gogoratu du askorentzat ezezaguna den borda honen historia 5

IKER HUARTE
PILOTARI PROFESIONALA

«Ez naiz oso segurua, baina bai jotzaile ona; nire bertutea da»

PILOTA Gaur Lazkaoko frontoian egingo du debuta, Frontis enpresarekin 2



N.U.

E Elkarrizketa**IKER HUARTE** > Pilotari profesionala

«Ez naiz oso segurua, jotzaile ona bai ordea; hau da nire bertutea»

Pilota >> Gaur Lazkaoko frontoian, herriko festen baitan, Frontis enpresarekin debutatuko du ia 25 urte dituen gazteak.

NEREA URBIZU

Lau urte egin ditu Tolosako eta Bidegoiango Aurrera-Saiaz pilota eskolan. Atzelaria. Frontisek begia bota dio eta... pilotari profesionala. Txiki-txikitatik pilotan ibilitakoa. Iker Huarte (Lazkao, 1983) da, eta gaur bere sorterrian debutatuko du Arizt Lasabikote duela, Bengoetxea VII-Armendarizen aurka. «Urduri» dago, «gainera», herriko festetan debutatuko du, «koadrila egunean, egunik onenean».

Frontis enpresa nafarrekin 2 urteko kontratua sinatu duzu. Pozik?

Bai, pozik. Bi urteko kontratua sinatu dut, eta urtean 50 partida jokatuko ditut gutxienez. Baldintza onak jarri dizkirate eta Iruñean entrenatuko dut. Tolosara ere etor naiteke, ez dago eragozpenik. Ondoren, ikusiko da zer izango den. Negan gutxiago eta udan topera. Asko bidaiatuko dugu, Zaragozan eta batez ere Errioxan (Espainia) asko jokatu behar izango dugu, gehiegi agian... Baina ohituta nago: Almerian, Burgosen ibili naiz, Espainiako Txapelketan... Azken hiru urte hauetan asko ibili naiz kanpoan: autoz, hegazkinez... Modu batera edo bestera, baina jokatzeraz joan naiz. Horretara ohituta nago: gustuko bidean aldaparik ez...

Duela ez asko zure bailarako beste batek debutatu zuen Frontisekin.

Unai Garmendiak, bai. Ondo-ondo. Pilotari gogorra zen afizionatutua. Datorren asteazkenean Lasa urretxuarrarekin Bengoetxea VII.a eta Armendarizen aurka ariko naiz, Frontisekoak denak. Bengoetxea ere ezagutzen dut: txikiagoak ginenean elkarrekin lehiatzen ginen.

Baten bati beldurra diozu?

Beldurra? Ez! Frontoian beldurra inorriez. Errespetua bai, baina beldurra ez da izan behar frontoian.

Ez duzu palmares nabarmenik.

Ez, inolaz ere. Asko ez dut irabazi: final askotara iritsi izan naiz, baina afizionatutua oso gutxi irabazi ditut. Gipuzkoan, Nafarroan... Betei galdu izan dut. Zorte txarrekoak naiz.

Baina esaten dute pilotakada bortitza duzula.

Hori esan egiten dute. Ez naiz oso segurua baina jotzaile bai naiz. Erraztasuna pilota atzeratzeko daukat: indarra, teknika, koloka-

zioa, aurre-hartzea pilotari. Hau izan daiteke nire bertuteetako bat. **Eta zertan zara ahulagoa?**

Segurtasun falta agian: hori orduak sartzearekin ikasten da. Erregularitatea behar dut. Gora-beherak izan ditut, eta lesioak ere mugatu egin dit, hori hobetu behar nuke. Baina azkenaldian ondo nabil. Azkenean oreka hori izatea lortu dut, eta horregatik etorri zait Frontisen aukera hori. Psikologikoki eta fisikoki oreka hori lortu behar da.

Burua ondo izatea beharrezkoa da beraz?

Psikologikoki oso gogorra da pilotatu, ematen ez duen arren. Pilotatzen gaizki eraman baduzu, hurrengoa pentsatzen hasten zara, zeure

Frontisekin asko bidaiatu behar da baina azken hiru urtetan afizionatutua ere horrela ibili naiz

buruari esaten «ondo eramango al dut hurrengoa?» Badauka bere historia. Profesionaletan gainera luparekin begiratzen dituzte jokaldiak, presio gehiago dago.

Zaila izango da gaizki hasitako partidari buelta ematea. Baita ongi zoazenean zorte horri eustea ere, ez?

Bai, zailak bi egoerak dira. Galtzen hastea ez zaio inorri gustatzen. Goian zaudenean irabazten, jende gogorraren aurka jokatzen baldin bazauda, zaila da hori mantentzea. **Bizitza aldatuko zaizu profesionalerara pasatzean?** Ez dutuste. Alde batetik bestera bidaiatuko dut, baina orain arte ere horrela ibili naiz. Agian orain gertuago jokatuko dut. Ekonomikoki hobeto, hori bai. Hor alde nabaritzen da.

Profesionalerara pasatzea amets bat izan da?

Bai, ametsa izan da. Helburu bezala ez, iristen bazen aukera, ondo, baina bilatu, ez dut bilatu. Egia esan, ez nuen Frontisen eskaintza espero inondik inora. Egun batetik bestera hots egin zidaten. Duela lau urte Asegarcerekin kontratu bat sinatu nuen, eta izandako lesioekin beti bueltaka ibili naiz. Irailetik aurrera zorte onarekin nabil, eta Frontisen aukera hau aprobe-txatu egin dut.

Hurrengo ametsa zein izango li-

N.U.

tzateke behin profesionaleratu zaudela?

Lehenengo Mailan jokatzea izan daiteke. Beraz, enpresako jabeen gustukoa izan beharko naiz hori lortu nahi badut. Ez da dena irabaztea. Nola nabilen ikusita, aukera hori lortzen dizute edo ez. Nire helburua maila altua ematea izango da Frontisekin eta ahal dena irabaztea. Gero ikusi egin beharko da.

Lesio handi xamarra izan duzu.

Duela bi urte eskuineko sorbaldan hartu nuen mina, Itsasondoko festetan pilotan ari nintzela. Infiltrazioak eta proba asko egin dizkirate, baina oraindik hor dago. Zerbait dagoela diote, baina garrantzirik ez emateko, eta arazoa nire delatela, ez dutela ezer larririk ikusten. Oraindik batzuetan tiratu egiten dit. Ohitu naiz eta beste baliabide batzuk erabiltzen ditut. Sotamano gehiago erabiliz, adibidez.

Gipuzkoar gehienek bezala zuk ere binaka jokatzea nahiago?

Egia esatea nahi baduzu, binaka nahiago dut. Lehenago eskuz banakakoa nintzen, baina nahiago dut binaka. Oso gogorra da binaka jokatzea, gainera lesioa izan nuen,

eta binaka, ezin da binaka jokatzen denean bezalako erritmoa jarraitu. Gainera, konfidantza asko behar da, eta nik ez daukat oraindik sortuta: aurrean jokaldiak egiten jakin beharra da, bi paretak menperatu, defendatu... Pilotari guztien ametsa hori da, binaka txapelduna izatea. Oso goa, bixia izan beharra da horretarako.

Lau urte Aurrera-Saiazekin. Zer zor diozu?

Hemen beti oso ondo tratatu nauten, orain ere hemen entrenatu nahi badut ez dute arazorik jarri. Aukera eman dit afizionatutua aritzeko eta partida pila jokatzeke, aurrelari onekin (Belloso, Olaetxea...), nahi izan dudanean entrenatu dut... Asko ikasi dut: edozer gauza edo arazo dugula, beti baten bat dago gainean soluzioa emateko.

Txikitari non ibili zinen?

Lazkaon 10 urtera arte ibili nintzen pilotan, herrian. Lazkaoko San Miguel Txapelketako 5 edo 6 txapela lortu nituen. Gero, 11 urterekin eta 10 urtez, Huarte Arakilen ibili nintzen pilota eskolan (familia erdia hangoa da). Aitak eramaten ninduen Lazkaotik Huartera, as-

>> DI-DA BATEAN

- **Frontoi bat.** Labrit, Iruñekoa.
- **Pilotari bat.** Une honetan Aimar Olaizola, Bestela, Julian Retegi: haren ezker baina gauza politago-rik ez da egon.
- **Pilotari ez bazina.** Suhiltzailea. Nire amets frustratua da.
- **Finala noren kontra?** Irujoen kontra, Irujo irabazteko.
- **Binakako finala zeinekin batera?** Titinekin batera.
- **Banaka ala binaka?** Binaka.

tearte, ostegun eta igandetan. Pilotari ikasi dudana asko han ikasi nuen. Gero Asegarcerekin Nafarroan jokatzen ikusi ninduten eta fitxatu egin ninduten lau urtetarako 2004ean, eta gero debutatzeko. Horregatik Tolosara etortzen hasi nintzen, etxetik hurbil.

Zer gertatu da Asegarcerekin kontratua?

Kontrato horren balioa nire debutaren ondorengorako izango zen, baina nola lesioarekin ibili naizen, ez da egun hori iritsi. Kontrato hori baztertua gelditu zen, beraz. Debutatzeko egun hori pilotaria ondo dagoenean jartzen da, eta enpresarek ere ikusten duenean. Nik ez nuen nire burua prest ikusten egun horretarako: presionatuz gero, nahi banuen debuta nezakeen, baina ez nuen nire burua profesionaleratu ikusten oraindik. Itxaron nuen eta iristen bazen eguna ondo, eta bestela ere bai. Azken batean niri pilotari aritzea gustatzen zait eta asko gozatzen dut.

Orain arteko une onena eta txarrena gogoratzen dituzu?

Txarra lesioa izan nuenekoa, Itsasondoko festetan. Partida bukatu nuen. Onena, berriz, Frontisek emandako aukera. Bestela, final guztiak galdu ditut, eta zapore txarra utzi didate.

Etxean debutatu behar duzu...**Onerako ala txarrerako?**

Onerako eta txarrerako. Herriko festak dira, koadrila egunean gainera, egun polita izaten da hori. Urduri nago, egunero jendeak hurbilago dago, egunero jendeak hots egin dit... Gauza onak ere baditu, izan ere, ondo ateraz gero oso ondo. Baina urduri jarritz gero, sorbaldan mina sentituz gero, akabo. Dena dena, zailena eginda dago: profesionalerara pasatzea. Baina asteazkenean pasatzea. Baina asteazkenean pasatzea baikor pentsatuko dut.

>> DEBUTARI BURUZ

- **Eguna.** Apirilak 30, asteazkenea (Lazkaoko festak).
- **Frontoia.** Lazkaoko frontoia.
- **Partidak.** Bigarrean Iker Huarteren debuta.
- **Enpresa.** Frontis.
- **Ordua.** 22:00etan.
- **Jokalariek.** Lopez-Garmendia / Urdaniz-Ruiz de Larramendi lehen partidari. Bigarrean Lasa-Huar-te / Bengoetxea VII-Armendariz.



Giro «polita» Leitzarango jeitsieran

ASIA ● Igandearen Samaniego-Orixe kirol batzordeak antolatutako Leitzarango jeitsiera egin zuten. Hainbat urte daramatzate irteera hau antolatzeko eta «arrakasta handia» izaten du urteetik urtera. «Gelatik kanpo, ondo pasatuz, elkar konpartituz... euskararen erabilera, ingurumenarekiko errespetua eta gure inguruak ezagutzekoa piztea» da ekimen hauen helburua. Hori guztia, gainera, «familien partaidetzaren bidez eta giro ezinhobean» egin ahal izan genuen. HITZA



Hizkuntza desberdinetan irakurriz

HEZKUNTZA ● Pasa den ostiralean bukatu zuten Samaniego ikastetxean VIII. Literatur Astea. Ostiralean egin zuten irakurketa maratoian gurasoek eta hainbat erakundetako kidek hartu zuten parte, ONCE eta gorrien elkarteak, esaterako. Hala, hizkuntza asko entzun ahal izan ziren irakurketa saioan egun osoan. Ekimen polita asteari amaiera emateko. HITZA

S Soka motzean

«Lanean ari nintzenean ongi bizi nintzen, orain berriz, bizi»

PACO BARRIO

Jubilatua

IÑIGO TERRADILLOS

El Cielo tabernan hainbat eta hainbat urtetan lan egin eta gero, duela lau urte inguru erretiratu zen Paco Barrio (Tolosa, 1941).

Gustura hartu al zenuen erretiroa?

Bizitzen hasiatea izan zen. Opari gisa hartu nuen.

Nolakoa da zure egun arrunt bat?

Nahiko garaiz jaikitzen naiz, ondoren buelta bat ematera irtezen naiz, egunkaria, ogia eta horrelakoak erosiz. Eguerdialderako berriz Zahar etxera joaten naiz, eta horrelaxe.

Zein garai duzu nahiago, lan egiten zenuenekoa, edo oraingoa?

Lanean ari nintzenean ongi bizi nintzen, eta orain berriz, bizi. **Orain 65 urte baino beranduago erretiratzeko aukera ere badago.**

Ahal balitz 40 urtera jaitsiko nuke nik erretiroa. Izan ere, orain daramadan biziarekin ere ez naiz aspertzen.

Orain zer egiten duzu, lehen ezin zenuena?

Irakurtzea asko gustatu izan zait beti, eta lehen gauez egin beharra neukan. Orain berriz, egunean zehar egiten dut.

Egungo gazteek izango al dute erretirorik?

Bai, nik uste dut baietz, eta gainera, ea onetako den. Baina hori bai, horretarako gizarte segurantzaren ordaindu beharko dute.

Erretiratuak ongi bizi zaretela esango al zenuke?

Ez, orohar ez gara ongi bizi. Laguntzak daukazu bai, baina ez dira nahikoak, pentsioak oso baxuak baitira.

Zer esango zenioke erretiratzear dagoen bati?

Sasoian badago lanean jarraitzeko, baina adinean badago, ongi bizitzeko erretiratzeko bada ere.



L.T.

Voith-Gorostidiko tasatuen kontratuak sinatzen hasi dira

Hirigintza » 319 etxebizitza tasatu eraikiko dituzte, eta horietatik 306 zozketa bidez esleitu dituzte; 148 dira babes ofizialekoak.

ERREDAKZIOA

Voith-Gorostidiko etxebizitza tasatuen adjudikatzaileak hasi dira salerosketako kontratua sinatzen, Toki Babeseko Etxebizitzak adjudikatzeko baldintzak betetzen dituztela egiaztatuta eta gero.

319 etxebizitza tasatu eraiki behar dituzte guztira. Horietatik 13

eremu horretako bizilagunak berriaz alojatzeko izango dira; beraz, zozketa bidez 306 etxebizitza tasatu esleitu edo adjudikatu dira.

Denera, Voith-Gorostidiko eremuan babes ofizialeko 148 etxebizitza, 319 tasatu eta salmenta libreko 276 eraikiko dituzte. Eragiketa honek lehen mailako helburu estrategiko batzuk lortzeko aukera eman du Udalaren arabera: Tolosan pisu espezifikoko handia duten enpresak, Gorostidi, Voith Paper, Fudike... beste leku batera eraman dituzte: «haiek garatzeko leku egokiagoa da, finkatu egin da enpresa horien jarraipena, instalazioak be-

rritu eta eragotzi egin da batik batik bizitegi-inguru zen leku batean industria-instalazio zaharkitu batzuek zuten eragina». Bestalde, «eremu horretako etxetan bizi ziren 41 lagun berriro alojatuko dituzte, eta oraingo etxebizitzetatik joan beharrik ez dute izango berriak erabat bukatu arte». Halaber, «berreskuratu egin da erabilera industrialak degradatutako lurra, berreskuratu egingo da erdi aldeko hiri-espazioa, orain arte industria-jardueraren intentsibo batek hartzen zuena, eta garrantzizko eta kalitatezko leku publikoak sortu dira zonaldean».

U Urteurrena

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitzza.info / Tel.: 943-65 56 95

II. urteurrena MARIA OTEGI GARMENDIA



Maiatzeko lore ederrena
lore guztien lurrin goxoa,
amarik ederrena,
amonik maitagarriena.

MAITE ZAITUGU



BIHAR, OSTEGUNA, goizeko HAMARRETAN, Zumarragoako ANDRE MARIJASOKUNDEKO parroki elizan egingo den bere aldeko urteurrenako elizkizunera gonbidatzen zaituztegu.

ZUMARRAGA
2008ko
apirilaren 30a

'Artea Oinez' erakusketa ibiltaria ikusteko aukera Aranburu jauregian

Tolosa » Ehun artelanetik gora ikusi ahalko dira maiatzaren 10era arte; aipagarriena, Oteizaren 'Euskal zentauroa'.

IMANOL GARCIA

Egunotan Tolosako Aranburu jauregiak *Artea Oinez* erakusketa hartuko du. Nafarroa Oinezek antolatzen duen erakusketa ibiltaria da eta maiatzaren 10era arte ikusi daiteke, asteartetik larunbatera, 17:30etik 20:30era. Ehun artelan baino gehiagok osatzen dute erakusketa eta horietan aipagarriena Jorge Oteizaren *Euskal zentauroa* da. Oteiza Fundazioak espreski utzi du artelana erakusketa honetarako.

Artea Oinez erakusketa enaurrezpenean Unai Arellano Jaso Ikastolako zuzendaria, Jaione Apalategi Oteiza Fundazioko kidea eta Jokin Bildarratz Tolosako alkatea izan dira. Bildarratzek hartu zuen hitza hasieran eta Nafarroa Oinezi eskerrak eman zizkion horrelako erakusketa bat antolatzegatik, «honek erakusten duelako mugimendu baten atzean hezkuntza proiektu integral bat dagoela».

Jaso ikastolak du aurtengo Nafarroa Oinez antolatzeko ardura eta bertako zuzendaria den Unai Arellanok azaldu zuenez, «bat egin nahi izan dugu Oteizaren mendeurrenaren ospakizunekin, artista oriotarrak ez baitzituen nolanhiko ekarpenak egin pedagogiarenean eta hezkuntzaren arloan». Arellanok gaineratu zuenez, «arteak eta kulturak protagonismo berezia izan ohi dute Nafarroa Oinezetan; izan ere, arteak, bere forma guztietan, garrantzi handia baitu ikastolan». Jaso ikastolan artea sentimenduak adierazteko bide bat dela deritzote, «munduaren gure ikuskera bestekin partekatzeko era bat; azken batean, gizaki gisa geure burua adierazteko modu bat. Gure ustez, artea ezinbesteko zutabea dugu geure garapen pertsonalean».



Goian, Unai Arellano, Jaione Apalategi eta Jokin Bildarratz, Oteizaren *Euskal zentauroa* eskulturaren aurrean. Behean, *Artea Oinez* erakusketa ikusi daitezkeen hainbat artelan. I. GARCIA/HITZA

Estetika eta hezkuntza

Jaione Apalategi Oteizak hezkuntzaren inguruan egindako ekarpenak buruz aritu zen. Horretarako, eskultorearen *Euskal zentauroa*

izan zuen abiapuntu: «Behealde Lurrari lotua dago eta begirada estetikoarekin lotzen du, hau da, sentimendu artistikoari dagokiona. Bestea, gora begira dagoena, begi-

rada erlijiosoa da. Euskal arimaren natura bikoitza, estetiko eta erlijiosoa, berezko euskaldunen irudia zentauroan ezin hobeto islatua dagoela zioen Oteizak».

Laburrak

Lekunberrira asteburu pasa eta Andatza Eguna

AIZTONDO • Maiatzerako, bi ekintza antolatuta dituzte kaxkagor elkartetik Aiztondo bailarako 12-16 urte bitarteko gazteentzat. Maiatzaren 4ean Andatza Eguna izango da eta bertara irteera egingo dute. 10:30ean gelditu dira Zizurkilgo plazan. Norberak bere bazkaria eraman beharko du. Maiatzaren 17an eta 18an asteburu pasa antolatuta dute Lekunberrira. Bertako zuhaitzen eta tirolinen abentura parkera bisita egingo dute, piszi-nara, ibilaldiak... Prezioa 50 euro da eta izena emateko azken eguna maiatzaren 6a da. Aduna, Alkiza, Asteasu, Larrail eta Zizurkilgo liburutegiaren eman daiteke izena.

Haur danborradan parte hartzeko aukera

ANOETA • Herriko festetako haur danborradan parte hartu nahi dutenek udaletxean edo ikastolan eman dezakete izena, maiatzaren 7a baino lehen. HH2tik aurrerakoek parte hartu dezakete. HH2 eta 3koek txapel berdeak jantziko dituzte eta danbor berdeak joko dituzte; LH1, 2 eta 3koek txapel gorriak eta danbor gorri ertainak eta LH4tik aurrera txapel beltzak eta danbor gorri handiak. Entseguak ikastolan izango dira, maiatzaren 13an eta 19an.

Bernardo Atxagak irabazi du Mondello saria

ASTEASU • Aurtengo Mondello saria Bernardo Atxagak irabazi du. Italiako sariarik garrantzitsuenetakoa da eta epaimahaik aho batez eman dio saria Atxagari. Atzerriko idazleen kategoriako garailea izan da Atxaga eta aho batez lortu du saria *Il libro di mio fratello* liburuarengatik, hau da, *Soinujolearen semea*.

Ukendu ikastaroa astelehenean hasiko da

LARRAU • Ukendu ikastaroa maiatzaren 5ean, astelehena, emango diote hasiera. 15:30etatik 18:00etara eta 19:00etatik 21:30era ordutegiak eta Katillutxulo elkartearen emango dute ikastaroa.

Gizarte parte-hartezari buruzko prestakuntza-ikastaroak

Donostialdea

Maiatza, Asteartea 6, asteazkena 7 eta osteguna 8.
19.00etatik 21.00etara Donostiako Lugaritz Kultur Etxean.

Goierri

Maiatza, Asteartea 6, asteazkena 7 eta osteguna 8.
19.00etatik 21.00etara Ordiziako Barrena Kultur Etxean.

Izena emateko:

Deitu

943 25 10 05

Idatzi

partehartu@baketik.org

Setsu

www.baketik.org

Lagarritza

Antolatzailea

Elkarrekin



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputazioa Foral de Gipuzkoa

kultura *politika* berria

Langurre Aldaba Txikiko mendian dago, Alegiatik gora eginez. Bertan dagoen bordatxoa gaurko egunez inauguratu zuten, duela 25 urte. Jabier Balerdik ahaztutako istorio hori berreskuratu du.

Langurreko bordaren istorioa

NEREA URBIZU

Langurre parkea atxedenleku bako bako gehiago da. Bakea bilatzeko toki aproposa da, herrietatik urrun xamar gelditzen delako, eta naturarekin bat egitea erraza delako. Aldaba Txiki herria mendian dago 250 metroko altueran. Txorien kantuak entzutea da han arruntena. Jolastokia, jatorrietarako mahai egokituak, komunak, zuhaitzak, bista ikaragarriak, eta borda txiki bat ere bada han.

Bordatxoak Sagastigaineta izena du, eta dagoeneko 25 urte bete ditu: 1983ko apirilaren 30ean inauguratu zuten. Horretaz, Jabier Balerdi (*Fortxedi*) Alegiako alguazilak badaki pixka bat, 28 urte badaramatza lan honetan, eta egunero-egunero Langurrera joaten da, zainketa lanak egitera, ura kloratzera, komunak astean behin garbitzera, eta abar.

Kontua da, Sagastigaineta bordaz jendeak ez duela asko gogoratzeko, eta Balerdiren laguntzaz, bere ibilbidetxo berreskuratzeko ahalgintxo izan da honakoa. «Beste bi edo hiru lagun galdetu diet baina ez du inork ia ezer gogoratzeko, aspaldiko kontuak baitira».

Sagastigainetako borda

Gaur, apirilaren 30ean, hain zuzen, 25 urte bete ditu bordatxoak. Babesleku, bere beheko sua eta guzti, aterpetxo bat da. Garai horretan Manuel Urbieta zen alkatea: Haren bidez eta gazte batzuen bitartez, lehenengo iturria egin zen eta gero, atzealdea garbitzen hasteko proposamena edo ideia atera zen, «eta horrela hasi zen». «Gazte horien artean Joxe Ramon Tolosa zegoen eta hark asko mugitu zuen asunto hori guztia».

«Langurreko atzealdea garbitzen hasi ginen, baserriak dauden parreraino, alegia». Diputazioarekin orduko alkateak hitz egin zuen eta erabaki zuten txabola edo aterpetxo bat egitea, Sagastigaineta, hain zuzen. Atzeko aldean biltegi txiki bat ere egin zioten: «Orduan suteak izaten zirenerako oinarritzeko tresneria, mendirako motoze-



Sagastigaineta aterpea Langurre parkean dago, haurren parketik gorago: atzean trastelektuko bat dauka. N. URBIZU

rrak, aizkorak, aitzurrak eta hala-koak gordetzen genituen».

«Hemen beti izan dugu Langurre garbitzera joateko ohitura, baina aurreko parteak bakarrik. Aska batzuk beheran zeuden, eta gazteak joaten ginen, eta hura pixka bat garbituz, babarrun jateak egiten hasi ginen», gogoratzen du Balerdik. Baina hori «aspaldiko kontua» delad dio.

Diputazioaren bidez etxola egin zen. «Argin batzuek egin omen zuten, tartean *Kaño* deitzen genion bat zegoela (gaur egun Amezketa bizi da), eta beste bi abaltzisketarekin batera».

Egurak guk deskargatu genituen, tratatua: «Deskargatzen ari ginela euri jasa latza bota zuen eta senegaldarrak baino beltzago bueltatu ginen etxera». Ondoren beste iturri bat ere egin zuten. Bizpa hiru hilabetetan egin zuten lana.

Gaur egun bada seiko talde bat Lasartetik etortzen dena, eta bordan egoten dira: «Urte modotan etorri izan dira. Elurrarekin ere topatu izan ditut, sua piztuta. Etorri eta txukun utzi ere bai, erratza eramaten baitut!». Alegiarrek ere

erabili izan dute: «Ehiztariak ere ibiltzen dira batzuetan. Sua piztu eta ehiza egin edo ez egin, berealdiko gosaria eginda». Beraz, badu bere funtzioa.

Sagastigaineta izena

Inguru horretan sagasti asko dago: «Eta lehen ere egongo zen. Langurre azpialdean oraindik ere badaude». Hortik etorri omen zaio izena aterpetxoari.

Parkea txukun-txukun

Mantenimenduaz Balerdi arduratzen da: egunero joaten da ura kloratzera, neurtzera eta behar denetan parrillak, askak edo komunak garbitzera. Komunak, esaterako, astean behin garbitzen ditu.

Txukun dago parkea, baina, «15 talde joanda, nahikoa da batek izoztzen badu, nahiz eta besteak zintzo ibili». Bestela, parke honek ez du besterik behar...



Aterpean beheko sua dago, eta parrilla txiki bat. Ongi babestuta dago. N. URBIZU

Laskorain areto futbol taldeak bana berdindu du Ancla-Dosamporrekin

ERREDAKZIOA

Laskorain areto futbol taldeak banakoa lortu zuen Ancla-Dosamporre aurka, larunbatean Ibarra-ko kiroldegian.

Partidaren minutu gehienek lore horia eramane zuten gol aurrei eta baloiaren jabetzari dagokionez: bilbotarrek, aldiz, ezusteko bat baino gehiago eman dute aurretiko denboraldian, urriak baina ondo landuak dituzten baliabideei aparteko etekina ateratzen jakin baitute.

Norgehiagok hasi bezain pronto aurreratu ziren etxeok Zabalaren golari esker. 1-0eko estu bezain arriksutsua zen, eta horrela frogatu zuten bizkaitarrek, falta jaurtiketa batean eta 4 minuturen faltan berdinketaren gola egin baituzten.

Egizabali eskerrak

«Egizabal maixuak» aukilan egin dako etapatxo honen bukaera suposatzen du partidak, Alonsok bere lekua berreskuratuko baitu jada, isuna bete ondoren. Taldearen izenean, eskerrak eman nahi dizkiote Egizabali, zuzendu dituen hiru partiduetan 7 puntu eskuratu dituelako.

Amezketako festetarako festa batzordea osatzeko bilera, astelehenean

ERREDAKZIOA

Datorren astelehenean Amezketa, herriko festak antolatzeko festa batzordea eratzeko bilera egingo dute.

Aurtengo Bartolome Deunaren Jaiak antolatzeko asmoarekin antolatuko dute bilera. Maiatzaren 5ean izango da, beraz, balioanitzeko gelan, eta 20:30ean elkartzeko dira.

txokoa h

2 sarrera pare zozketan

Irabazleak:

- o Juan Martin Amiano (Tolosa)
- o Izaskun Goikoetxea (Alegia)

AKABA BERA BERA
Itxako Navarra, A.B.F
ASTEAZKENA
APIRILAK
30 19:00
Donostiako Bidebieta Kiroldegian





Aurten sega probarik ez da egongo baina bai Goitibehera txapelketa. N. URBIZU

Bihar hasi eta igandean amaituko dira herriko jaiak

Orexa » Lau egunetan zehar jateko, edateko, kirola egiteko, dantzatzeko eta abesteko aukera ere egongo da.

20:00etan herritarrek udaletxearen aurrean bilduko dira eta tradizioari hasera emango diote. Oilarraren jaitsieraren ostean, sardina jana eta antzerkia izango dituzte orexarrek, karaokearekin amaitzeko bigarren jai eguna.

A. IMAZ

Mendi ibilaldiarekin hasiko dira bihar Orexako jaiak. Goizean mendi itzulia egin ostean, arratsaldean haur jolasak ospatuko dituzte. Hala eta guztiz ere, Oilarraren jaitsiera etzi egingo dute.

Santakutz Eguna

Larunbatean ospatuko dute Santakutz Eguna Orexan. Horretarako ekitaldi ugari antolatuta dituzte, besteak beste, herriko azoaren arteko apustua eta I. Goitibehera txapelketa.

» EGITARAUA

Bihar

- **09:30ean.** Mendi ibilaldia eta ondoren hamaiketako.
- **16:00etan.** Xiba haur jokuak. Ondoren merienda eta futbito txaelketa.

Etzi

- **20:00etan.** Oilarraren jaitsiera.
- **21:00etan.** Sardina jatea. Ondoren kale antzerkia Trapu Zaharra taldearen eskutik. Aterpea lana eskainiko dute.
- **01:00etan.** Karaokea.

Maiatzak 3, larunbata

- **12:00etan.** Diana herriko txistulariekin.
- **13:00etan.** Apustua herriko azoaren artean.

- **18:00etan.** Orexako I. Goitibehera txapelketa.
- **21:00etan.** Herri afaria.
- **00:00etan.** Erroneria Elortza eta Iñaki trikitilariekin. Ondoren DJ Bull.
- **Ondoren.** Baratzurizopa eta kalejira Xapre, Furri eta Izaro trikitilariekin.

Maiatzak 4, igandea

- **18:00etan.** Herri kirolak: Iñaki Azurmendi eta Joxe Ugarteburu aizkolariak eta Goenatxo II.a harri-jasotzailea.
- **19:00etan.** Sagardo probaketa. Ondoren Amets Arzallus eta Sus-trai Kolina bertsolarien emanaldia egongo da.



Haur Eskola eta Ikastolako Errektore Kontseiluetako gurasoek herritar ugari babesa izan zuten atzo. ASIER IMAZ

Haur Eskola eta Ikastolako gurasoak «herriko hezkuntz proiektuaren alde»

Ibarra » Gaur 17:30ean «elkarretaratze isila» egingo dute herriko plazan eta herritarrei parte hartzeko eskatu diete.

ASIER IMAZ

Uzturpe Ikastolako eta Uzturpe Haur Eskolako Errektore Kontseiluetako gurasoek prentsaurrekoa eskaini zuten atzo «herriko hezkuntz proiektuaren alde».

Bertan besteak beste, gaur 17:30ean herriko plazan «elkarretaratze isila» egingo dutela azaldu zuten, herritarrei bertara agertzeko deia egiteaz gain.

«Erabakia atzera bota»

Ibarrako Udalak ohiko azken bilkuran Udal Haur Eskola Partzuergo pasatzeko lehen urratsa

eman zuen. Bi Errektore Kontseiluetako gurasoek azaldu zuten, «herritar multzo zabal eta anitz batek orain arteko proiektuaren jarraipena defenditu arren» Udalbatzak erabaki hori hartu zuen. Horren ondorioz, gurasoek «hartutako erabakia atzera botatzea eskatzen jarraitzen» dutela azaldu zuten.

«Elkarlanerako prest gauden»

Haur Eskola eta Ikastolako gurasoak Udalarekin lan egiteko prest gaudela argi utzi nahi izan zuten: «Elkarlanerako prest gaudela adierazi diogu Udalari, gaiaren inguruan dauden zalantzak argitzea eta lantzeko, kalitateko zerbitzu bat mantentzeko, lan talde bat osatuz adostasun handiagoa jasoko duen proiektua denon artean garatu dezakegula uste dugu. Izan ere, partzuergoan sartzeko pres-

rik ez dago, hurrengo urteetan har daitekeen erabakia da eta».

Azkenik, erabakia atzeratzearen alde dauden guztiak, gaur 17:30ean herriko plazara agertzeko deialdia luzatu zieten.

Udalak igorritako oharra

Udalaren Euskara eta Hezkuntza batzordeak bere aldetik, «prentsa oharra igorri du Udal Haur Eskolari buruzko lan mahai bat» antolatu dela azaltzeko. Bertan talde politiko bakoitzeko bozeramaileak bilduko dira, haurtzaindegi eta ikastolako gurasoen batzordeko ordezkariak, langileekin eta Ikastolako zuzendaritzarekin. Bilera gaur 17:30ean egingo dutela azaldu du Udalak eta horretaz gain, «lan mahaian iritzi guztiak entzunak eta errespetatuak izatea» eskatu dute, «inongo presio eta indarkeriarik gabe».

E Eztabaida info

Ibarrako Udalak azken ohiko bilkuran Udal Haur Eskola Kontsurtzioan sartzeko lehen urratsa eman du. Zein da zure iritzia?

■ **Ines Oria eta Ixiar Amondarain (Haur Eskolako eta Ikastolako hezitzaileak).** «Ibarrako udalari: Ibarrako haur eskola, Uzturpe Udal Haur Eskola izan da sortu zenetik. 7 urte hauetan, Uzturpe Ikastolak kudeatu du guztia: administratza, langileen aukeraketa, hezkuntz ikuskaritzarekin harremanak, instalakuntzei dagokionez gela atonketa, mobiliarioa, mantenua... gurasoekin harremanak, parte-hartzea eta formazioa, hezitzaileen arteko koordinazioa eta

formazioa, haurren zaintzarako eta euren heziketarako hezkuntz estiloa finkatzea geurea den proiektua osatuz: egokitapena, atxikimendua, jolasa, esperimintazioa, psikomotrizitatea, harremanak... hitz potoloak dira guretzako haurren alderdi kognitiboa, motorea eta afektiboa garatzen dutelako. Tarte honetan, Udalak ez du jakin horren zerbitzu ona eskaintzen zuenik herrian: ez du Eskola Kontseiluko bilera bakar batean ere parte hartu eta ez zekien, orain arte, Haur Eskolako guraso eta haurrak hain gustura zeudunik. Orain badakizu udala: arro egoteko moduko zerbitzua duzu, behin baino gehiagotan zori ondura. Pena da horrelako egoerara iritsi behar izatea zuk honen berri izateko. Eta

hemen doa gure eskaintza: Uzturpe Udal Haur Eskola ezagutu, ino ezazu benetan zurea eta, parte hartuz, saia zaitez gurekin batera hobetzen eta handitzen. Gaztea da oraindik Uzturpe Udal Haur Eskola, ez ezazu zure ondotik kendu eta urrutira bidali. Ez ahaztu, ino ez da berandu, eta, «rectificar es de sabios».

■ **Maria.** «Bada garaia beraien poltronak eta poltsikuak herritarren interesen gainetik jartzen dituzten zingotzi eta alkateak aguantatu beharrean, herriak hauteskunderen aukeraturiko alkate eta zingotziek beraien karguak hartu eta herriarren alde lanean aritzeko aukera izateko. Herria maite ez baduzue, dimittitu eta herria maite duen jendearekin lanean utzi!».



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Aralar» Larreak irekiko dituzte bihar 12:00etan Larraitzen eta aitzaki horrekin urtero bezala jai egun polita antolatu dute bertan, musika, azoka, bertsolariak eta abarrekin.

NAIARA GARZIA

Bihar Larraitzen festa eguna izango da, urtero bezala larreak irekiko baitituzte. Hori dela eta, hainbat ekitaldi antolatu dituzte eguna jai giroan ospatzeko.

Jai eguna Aralarko larreak irekitzeko aitzakia izaten da urtero. Azken urteetan egin den bezala, aurten ere Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Ingurumearen Garapenerako departamenduak eta Enirio Aralarko Mankomunitateak antolatu dute jai eta egitarau oparoa prestatu dute egun pasa egiteko.

Uda Aralarko larreetan

Ostegunean 18.000 ardi, 650 behor eta 700 behi inguru igoko dituzte Aralarko larreetan, Txindoki ondoko lepotik hasi eta Igaratza aldera arteko larreetan, alegia, eta bertan igaroko dute uda, baita udazkeneko zati bat ere.

Azkeneko urteetan artzain gutxiago dauden arren, Aralarren bazkatzen egoten den abere kopuruak ez du behera egin. Joxe Antonio Irastorza Enirio Aralar Mankomunitateko basozainak artzain bakoitzak kantitate handiagoak dituelako dela dio. «Lehenago ganadu-zale gehiago ziren, baina kantitate gutxiagorekin. Orain



12:00etan etxafuegoa bota eta abereak mendi aldera igoko dituzte. N. GARZIA

18.000 ardi, 750 behi eta 650 behor igoko dituzte bihar Aralarrera

abeltzain batek lehenago zenbait adina abere izaten ditu, mekanizazioa dela eta gauzak erraztu egiten baitira, bai udan belarra biltzeko, eta lehenago ere ardiak jeizten eskuz ari bazinen muga bat zenuen. Orain mekanizazioaren ondorioz kantitateak gora egin du».

Ardiak eta behiak urrian jaisten dituzte, bukaera aldean, eta behorrek pixkanaka jeisten dituzte, «normalean hortik hasi eta abendua bitarte». Hilabete horietan ere artzainek abereak zaindu egiten dituzte, bereziki ardiak, «txabole-tara biltzen baitituzte».

18.000 ardiak, 650 behorrek eta 700 behiak 40 artzainek igoko dituzte. «Bakoitzak bere txabola dauka, hauek berritzen ari gara, eguzki panelen bitartez argia izateko. Jabegoa mankomunitateak dauka, eta artzainek errenta sinboliko bat ordaintzen dute».

» EGITARAUA

- **10:00.** Azokako postuak irekiko dituzte eta Benta Zaharreko Mutiko Alaiak taldeak emanaldia eskainiko dute.
- **11:00.** Euskal Herriko salbamenduko txakur taldearen erakustaldia.
- **12:00.** Larre irekiera, etxafuegoarekin.
- **Ondoren.** Jaialdi berezia Benta Zaharreko Mutiko Alaiak taldearekin, Bixente Gorostidi eta Alaitz Sarasola bertsolariarekin eta Mari Jose Sardon harri-jasotzailearekin.
- **17:00.** Erromeria, Triki-Jazband bikotearrekin.

Larre irekiera 12:00etan izaten den arren, festa betigoizago hasten da, eta azoka ere goizeko lehen ordudetik prest izaten da.

Jai egun oparoa

12:00etan etxafuegoa bota baino lehen hasiko da festa, 10:00etan postuak irekiko baitituzte eta Benta Zaharreko Mutiko Alaiak festa gunean zehar ibiliko dira. 11:00etan Euskal Herriko salbamenduko txakur taldearen erakustaldia egingen dute, 12:00etan Aralarko larreak irekitzeko etxafuegoa botako dute, ondoren jaialdia egingo dute Benta Zaharreko Mutiko Alaiak taldearekin eta Bixente Gorostidi eta Alaitz Sarasola bertsolariarekin. Gero Mari Jose Sardon harri-jasotzaileak ere saioa egingo du.

Postuetan ere abere erakusketa egingo dute eta bertako produktuen salmentaz gain, artilea, harria, abarkak, saskia eta ohiko tresnen erakusketa egingo dute.

Amaitzeko, arratsaldeko 17:00etan erromeria egingo dute Triki-Jazband bikotearrekin.

Aurrera oso fin kanpoan jokaturako partidetan

Pilota» Amazabal Pilotalekuan jokaturako partidetan, berriz, 8 norgehiagoketatik 4 irabazi eta 4 galdu egin zituzten.

ERREDAKZIOA

Joan den asteburuan Aurrera Pilota Eskolako pilotariak hainbat txapelketatan hartu zuten parte: Nafar Jokoa, Zaramagakoan, Lizarrakoan, GRAVN Txapelketan eta Teledonostikoan.

Nafar Jokoei dagokienez, 10 norgehiagoka jokatu zituzten, horietatik 8, Amazabalen eta hauetatik 4 irabazi eta 4 galdu zituzten. Altxelaik eta Illarregik Errekaren aurka galdu zuten, Gilek eta Saralegik, Zugarralderen aurka, Sagastibeltza Eguesek eta Igartuak Oberearen aurka eta Olanok eta Aldaregiak Uharteren aurka.



8 partida jokatu zituzten larunbatean Amazabal Pilotalekuan. N. GARZIA

Burlatan Ander Eskudero eta Josu Zabaletak galdu egin zuten bertako bikote baten aurka, eta Iruñean, aldiz, Julen Goikoetxeak eta Lenitz Galartzak irabazi egin zuten. Leitza, Erasok, Mariezkurrenak, Azurmendik, Sagastibeltzak, Erasok, Gilek, Etxeberriak eta Jaunarenak irabazi egin zuten.

Beste txapelketak

Aurrerako pilotariak hagitzen fin ibili dira beste txapelketetan. Sagastibeltza Lasartek eta Anduezak Zaramagako txapelketan jokaturako norgehiagoka aise irabazi zuten, baita Asier Gilek eta Eskudero aldebatek, eta Aimar Gilek eta Al-duntzinek, bestetik, Lizarrako txapelketan jokaturako bi partidak.

Jon Jaunarenak eta Bergerak Oreretan larunbatean jokaturako partida irabazi egin zuten. Jaunarenak, igandean beste partida bat jokatu zuen, Teledonostiko lau

t'erdiko txapelketaren barruan eta tanto bakarrarengatik galdu zuen Mendinueta pilotariaren aurka, 22-21eko emaitzarekin.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Iurgina.** Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. 658 22 70 58

GALDUTAKOAK

■ **Argazki makina.** Igaratzatik mintonetarako bidean argazki kamara bat galdu genuen igandean. CA-NON IXUS 60. 660 57 91 44.

■ **Txakurra.** TBorder Collie txakurkume bat galdu zaigu igande goizean Ernioko bidean. Lepoko gorria darama. Zerbaiten berri izanez gero deitu 656 79 29 63 zenbakira (Jon).



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialea: 687 410 034. alegialea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzailea: 687 410 118. leitzailea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaileko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Anoeta.** Koadrilen Egunerako bazkari eta afari txartelak salgai. Izen-ematea, Itzuli edo Buztina tabernetan 7,5 eurotan.
- **Ibarra.** Maiatzaren 7an Izaskungo erromerian egingo den bazkari-rako txartelak, Bizi nahi elkartearen 25 eurotan (bazkide ez direnek 30 euro).
- **Ikaztegieta.** Herri Urratsera maiatzaren 11n joateko Udalak autobusaren antolatua du. Izena Udaltzainaren eman behar da. 6 euro balio du.
- **Tolosa.** 10:00etatik 14:30era zirkulatoreen errebisioa egingo da Ferialekuan. Txanda eskatu behar da Udaltzainoan (943-675858).
- **Villabona.** Villabonako Udaleko Euskara Zerbitzuak Amodiozko Gutunen Lehiaketa martxan jarri du. Lanak udaletxean entregatu behar dira.

Ikastaroak

- **Alkiza.** Ukenduak egiten ikasteko ikastaroa (intsusa, kalendula, berbera, eta abar) antolatu dute maiatzerako, astelehenetan edo asteazkenetan Pili Otaegirekin 15 eurotan. Izen-ematea, Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatean (943 693930).
- **Tolosa.** Gizarte parte-hartzeari

buruzko prestakuntza ikastaroak doan Antonio Maria Labaien kulturetxean maiatzaren 13, 14 eta 15ean, 19:00etatik 21:00etara. Izen-ematea, Baketik (943 251005, www.baketik.org, partehartu@baketik.org).

Irteerak

- **Berastegi.** Basurde elkarteak XVI. Ibilaldi Neurtua antolatu du iganderrako, 07:00etan abiatuta, inguruko mendietan. Izen-ematea, Zelai tabernan, 630 806080 zenbakian, basurde@komunikazioa.org webgunean edo irteeran. Antolatzailea: Basurde elkarteak.
- **Tolosa.** Harizpe jubilatua eta pensiodunen elkarteak irteera antolatu du Atapuerca eta Burgosera maiatzaren 13rako. Izena eman nahi dutenek 30 euro (33 euro bazkide ez direnek) ordaindu behar dute.
- **Tolosa.** Harizpe jubilatua eta pensionista elkarteak Saloura irteera antolatu du ekainaren 15era pensio osoan. Izen-ematea, elkartean 395 eurotan (bazkide ez direnek 401 euro).
- **Tolosa.** Iturriza jubilatua elkarteak Peñiscolara irteera antolatu du maiatzaren 18tik ekainaren 1era 410 eurotan (bazkide ez direnek 415 euro).

- **Tolosa.** La Jara zentroak Extremadurara irteera antolatu du maiatzaren 1etik 4ra Jerte bailara, Coria, Alcantara eta Caceres bisitatzuz. Prezioa: 240 euro. Izen-ematea, 675 707619 telefonoan.
- **Tolosa.** Universales mendietara irteera. Antolatzailea: Oargi mendi elkarteak. Cuencako Montes Universales-etara irteera antolatu du maiatzaren 1etik 4ra. Izen-ematea, 637 830 380 telefono zenbakian.
- **Tolosa.** XIV Orduko Martxarako izen-ematea, Aralarko Adiskideen elkartearen (Araba etorbidea 5) edo a.adiskideak@terra.es webgunean. Martxa maiatzaren 18an izango da. Antolatzailea: Aralarko Adiskideak.

Erakusketak

- **Alegia.** Alegiko jubilatuen tabernan Lucia Arenas tolosarraren margolanak izango dira ikusgai. Asteartetik igandera bitarte, tabernaren ordutegiaren baitan. Ikusteko azken eguna, igandea izango da.
- **Tolosa.** Artea Oinez 08 erakusketak Aranburu Jauregian Nafarroa Oinez 08k antolatuta.
- **Tolosa.** Miren Gonzalez Goikoa margolari tolosarraren *Zaborontziak* erakusketak Leidor aretoa, Naturaldia jardunaldien barruan.
- **Tolosa.** Encarna Mejia margolari alegiarraren olio-pinturak ikusgai itaie tabernan.

- **Tolosa.** Angel Arbe artistaren *Biogeometriak* lanen erakusketak Aranburu Jauregian.
- **Tolosa.** Jose Bach Riu margolari kataluniarren lanak Lanbroa tabernan. Paisaiak dira eta euskal gaia ere agertzen da.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 67 60 13.
- **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
- **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esaneri eta iritzien erantzunkizunik.


A Agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxeko bulegoa



'121 amu' KOSTALDEA EZAGUTZEKO'
liburua

Maiatzak 10, larunbata
kartilla eta 1. kupoia
berriarekin

